

## Indarra eta oihua

**Garazi Larrañaga Jaurrieta**  
**DBH 3. eta 4. kurtsoak 2. saria**  
**Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola**

Emakume baten oihua  
borroka latzean galdua.  
Kanpoan zeruak egiten du negar,  
neskatxaren barnean bere bihotzak.  
Bihotz beltz zauritua,  
zauritua eta nekatua.  
Bere begiek dute islatzen,  
burdina bezain astuna den  
min nazkagarri iluna.  
Esku ahulak,  
gauero bere gainean  
erortzen diren harri kolpeak  
gelditzeko indar aski ez dutenak.  
Indarra eta oihua,  
biak galduak,  
hainbeste behar dituenak.  
Gizarte aurreratu honetan,  
zoritxarrez,  
hamaika emakumek behar dutena.  
Adorerik gabe berreskuratzen  
hain zaila dena.